

KOMUNIKAZIOETARAKO DEIALDIA

Ahots entzungarriak, hizkuntza ikusezinak: hizkuntza gutxituen aitortza eta sailkapena munduan.



RECLAM Nazioarteko Kolokioa
2025eko azaroaren 17-18-19
Maison des Sciences Humaines de Bordeaux

Gai nagusia:

«Hizkuntza gutxitu» terminoak, Blanchet-ek (2005) «gutxiengo», «gutxitze» eta «gutxitasun» kontzeptu-eremuaren inguruan eginiko teorizazioaren ildotik, egiturazko hierarkizazio prozesu sozio-politiko bat nabarmentzen dute. Horri esker, hizkuntza horiek eta haien hiztunek jasaten dituzten ondorioak hobeto uler daitezke. Hala ere, terminologia ugaria dago, eta hizkuntza bakoitzaren testuinguruaren arabera aldatzen da (estatusa, eremu geografikoa, kulturala, linguistikoa, etab.). Halaber, sailkapena egiten duen aktorearen ikuspegia (akademikoa, militantea, etab.) eta sailkapenaren helburua (aitortza ofiziala bilatzea, estatuaren neutraltasuna bermatzea, etab.) ere kontuan hartu behar dira. Horrenbestez, beharrezkoa da ikuspegi global bat garatzea eta diziplina arteko eta kultura arteko elkarrikitasuna sustatzea, munduko txoko ezberdinetako esperientziak eta ikerketa-praktika eraginkorrak partekatzeke.

2025eko urtarrilaren 21ean eta 22an Bordelen egindako frantziar-brasilardar lehen lantegiaren ondotik, RECLAM Nazioarteko Kolokioak (2025eko azaroaren 17-18-19) hiru ardatz nagusi izanen ditu: sailkapena, transmisioa eta epistemologia.

Plazer handiz jakinarazten dugu Philippe Blanchet (Renneseko Unibertsitatea, Frantzia) soziolinguista eta Valdir Heitor Barzotto (São Pauloko Unibertsitatea, Brasil) hizkuntzalari eta didaktikan aditua gurekin izanen direla eta hitzaldi nagusiak eskainiko dituztela.

Kolokioan parte hartzeko, profil anitzeko pertsonak bilatzen ditugu:

- Irakasle-ikertzaileak

- Doktoregaiak
- Esparru akademikotik kanpoko eragileak (adibidez, hizkuntzen biziberritzean lan egiten duten elkarteetako kideak)

Parte hartzaileek azpiko hiru ardatzetariko batean kokatu beharko dute haien proposamena:

1. Hizkuntza gutxituen sailkapena

Hizkuntzen sailkapenari dagokionez, terminologia eta hura definitzeko erabiltzen diren kontzeptuak aztertuko dira. Adibidez, «*langue d'appartenance*» (Defays, 2018) eta «*langue d'identification*» (Fabà Prats eta Torres-Pla, 2019) sinonimotzat hartzen ahal dira? Termino horiek lege-esparruan ere eragina dute, hizkuntza ofizialen eta nazionalen hautaketatik hasi eta hizkuntza horien (ez) aitortzaraino. Nazio edo talde baten identifikaziorako elementu gisa gartzen dira eta horrek ondorio juridikoak ditu (irakaskuntza, administrazioarekin harremanak izateko hizkuntza...) eta beraz Estatuentzako auzi garrantzitsua dira. Momentukoz arlo juridikoan ez da lan askorik argitaratu (Bertile, 2008), horregatik alderdi hori mahain gainean jartzea biziki interesgarria da.

Gai honi loturiko aztergaiek artean honako azpigaiak lantzen ahalko dituzte:

- Hizkuntzen sailkapena eta eskubide linguistikoak
- Hizkuntza gutxituen sailkapenaren teorizazioa
- Kasu azterketak: hizkuntza baten edo batzuen sailkapena testuinguru jakin batean
- Hizkuntza gutxituak testu juridikoetan eta legeetan nazio batean edo nazioartean
- Terminologiaren erabilera Estatuaren hizkuntza-politiketan
- Hizkuntza-komunitateek terminologia berreskuratzea
- Terminologiaren rola hizkuntza sailkapenaren/aitortzaren eta Estatuaren hizkuntza politiken arteko harremanetan.

2. Hizkuntza gutxituen transmisioa

Hizkuntza bat biziko bafa, belaunaldiz belaunaldi transmititu behar da. Hori bereziki garrantzitsua da desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen kasuan. Atal honetan honakoan landuko dira, besteak beste: hizkuntza jabekuntza, irakaskuntza-ikasketa (Barzottoren (2004) proposamenari segika, ikasleen hizkuntza aldaerak hizkuntza estandar edo bateratuarekin batera irakasteko proposamenaren ildotik), hizkuntza politikak eta familiako hizkuntza politika (Haque, 2019), edo aldaera estandarraren lekua (Andión & Gil, 2013) eta polinomiaren aintzat hartze didaktikoa (Ottavi, 2010).

Beraz, gai honi loturiko aztergaiek artean honako azpigaiak lantzen ahalko dituzte:

- Hizkuntza gutxituen transmisio-metodoak
- Hizkuntza-transmisioa eta militantzia
- Hizkuntzaren eta erabileren irudikapena
- Memoria historikoa: transmisiorako zubi bat?
- Familia-politika linguistikoak
- Familia mailako transmisioetik eskolara: eskolaren papera transmisioan
- Aniztasun linguistikoaren didaktizazioa eta hizkuntza estandarraren rola

3. Epistemologia: hizkuntza gutxituak eta ekoizpen zientifikoa

Katalan-okzitan sociolinguistikaren ildotik, "periferikoa" ere deitua (Lafont, 1997; Boyer, 2012), ikertzaileak hizkuntza gutxituen eremuan duen kokapena aztertu beharra dago (Agresti, 2020). Nor ari da minorazioaren inguruko ikerketan, nola, zergatik, norekin eta zein zilegitasunekin? Zein leku eman behar zaie hiztunei eta hizkuntza-komunitateei ikerketa-prozesuan? Gizarte zibilak bere egiten al ditu unibertsitateko ikerketen emaitzak? Galdera horiek aukera anitz eskaintzen dituzte hainbat jatorritako eta geografia-eremu desberdinetako ikertzaileen parte-hartzerako, baita hizkuntza gutxituen komunitateetako kideen ekarpenetarako ere. Kontzeptu batzuk lantzeko gomita luzatuko da, hala nola ikuspegi etikoa/emikoa (Sardan, 1998), hizkuntza-plangintza "goitik behera", "behetik gora" edo "tarteko mailan", edota Linguistique Pour le Développement mugimendua (Métangmo-Tatou, 2020; Zouogbo (arg.), 2022), Afrikan bereziki garatua. Horrez gain, ekoizpen zientifikoetan eta diskurtso ofizialetan egiten den hizkuntzaren irudiakapenaren azterketak aukera ematen du ulertzeko ez bakarrik egokitzapen eta inkorporazio prozesu linguistikoak, baizik eta unibertsitateko ekoizpenak nola laguntzen duen, zuzenean edo zeharka, hizkuntza-politikan eta nortasun kultural zein linguistikoen garapenean.

Gai honi loturiko aztergaiek artean honako azpigaiak lantzen ahalko dituzte:

- Hizkuntza gutxituen irudia testu akademikoetan
- Hizkuntza gutxituetan ezagutza sortu eta transmititzea
- Hizkuntza gutxituen dibulgazio zientifikoa
- “*Publish, Perish... or Resist ?*” hizkuntza gutxituak ekoizpen zientifikoan
- Hizkuntza gutxituak giza zientzietan: faszinazio akademikoaren eta bazterkeria instituzionalaren artean

Kolokioaren hizkuntzak

Bizi dugun kultura akademikoak pentsarazi digu eleaniztasuna eskatzen duten espazioak sortzeak arazo logistikoa esan nahi duela eta zaila dela gure emaitza zientifikoak eta gure proiektuak testuinguru horretan partekatzea. Erronka honakoa da beraz: nola sortu espazio inklusibo bat, elkarren arteko ulermena bermatuz? Galdera horrek erronka bat suposatzen du baliabide material aski ez dituzten komunitate akademikoentzat.

Are gehiago aztergaia hizkuntza gutxituak diren kasuetan. Izan ere, bizi dugun diglosiaz arituko gara eta usu horretarako hizkuntza handietara jo ohi dugu; beraz paradoxa baten aitzinean aurkitzen gara, egoera betikotzea eragin dezakeena. Nola egin aurre egoera kontraesankor horri?

RECLAMentzat, galdera hau bai aztergai bai erronka da gure kongresuaren antolaketan. Hori dela eta, gure antolaketa-lanaren parte garrantzitsu bat hizkuntza-politika ahalik eta eraginkorrena diseinatzea izan da, eta horretan aritu ginen 2025eko urtarrilean egin genuen lehenengo lantegian. Bertan, komunikazio formatu eleanitz desberdinak esperimentatzeko aukera izan genuen. Galdera egin genion geure buruari ahozko komunikazioetan erabilitako hizkuntzen kopuruaren muga inguruan, baita ulermena bermatzeko euskarri eleanitzak sortzearen garrantziaz ere. Horretarako, galdetegi baten bidez, parte-hartzaileen (hizlari eta entzuleen) iritziak jaso genituen ekitaldiaren esperientzia linguistikoari buruz. Jasotako iritzi horiek oinarri izango dira nazioarteko kongresurako ulermena errazteko gure baliabideak hobetzeko.

Horregatik, zure komunikazioaren laburpena bi hizkuntzatan idaztea proposatzen dizugu (frantsesa, portugesa, gaztelania edo ingelesa). Hizkuntza gutxitu baten hiztuna bazara, zure hizkuntzan ere gehigarri bat aurkez dezakezu.

RECLAM: proiektu inklusiboa elkarrekin lan egiteko:

RECLAMek komunitate linguistiko gutxituen kideak inplikatu nahi ditu bai eztabaidetan, bai ekitaldiaren antolaketan. Horregatik, **hainbat espazio akademiatik kanpoko aktoreentzat zabalik izanen dira, hala nola: testigantzak eta hizkuntza-biziberritze proiektuen aurkezpenak, etab..** Gainera, tokiko hizkuntza eta kulturak ezagutzeko jarduerak eskainiko dira (okzitaniera, euskara), tokiko elkarteekin elkarlanean.

Parte hartzeko baldintzak

Laburpenak (gehienez 300 hitz, bibliografia kenduta) 2025eko maiatzaren 4a baino lehen igorri beharko dira helbide honetara: **comite.languesminorisees@gmail.com** Laburpenak anonimoak izanen dira, eta gutxienez bi hizkuntzatan idatzi beharko dira (frantsesa, portugesa, gaztelania edo ingelesa). Hizkuntza gutxitu batean laburpen osagarri bat gehitu daiteke.

Bidalketa formatua:

- Dokumentu bat (.doc / .docx, Times New Roman, 12pt)
- Mezuaren gaia: "Proposition de communication"
- Mezuaren barnean, honako informazioa:
 - Izena (letra xehez) eta ABIZENA (letra larriz)
 - Erakundea
 - Estatusa (irakasle, doktoregai, elkarteko kide...)
 - Komunikazioaren izenburua
 - Gako-hitzak (5 gehienez)
 - Aukeratutako ardatza(k)
 - Zure hizkuntza-gaitasunak ahozko eta idatzizko (diaporama) aurkezpenentzat
 - Kolokioan fisikoki edo telematikoki parte hartuko duzun zehaztu (bi modalitateak onartuko dira, baina parte hartze handia izanez gero bertaratu daitezkeen aurkezpenei lehentasuna emanen zaie)

Beste galdera edo zalantzarik baduzue, gurekin harremanetan sar zaitezke ondoko helbidean: **comite.languesminorisees@gmail.com**

Egutegia:

- Proposamenen bidalketarako azken data: **2025eko maiatzaren 4a**
- Onarpenen erantzuna: **2025eko ekainaren erdialdea**
- Kolokioa: **2025eko azaroaren 17-18-19**

Kolektiboa:

RECLAM Kolektiboa (REconnaissance et Catégorisation des LANGues Minor(is)ées – "oihartzuna" esan nahi du gaskoi-okzitanieraz) Bordele Montaigne Unibertsitateko (UBM) eta São Pauloko Unibertsitateko (USP) sei ikertzaile gaztek osatzen dute, beren ikerketa-zuzendarien babesarekin:

- Giovanni AGRESTI, Hizkuntzalaritzako Unibertsitateko Irakaslea Bordele Montaigne Unibertsitatean (Frantzia) eta Hizkuntzalaritza, Hizkuntza eta Itzulpengintzako Irakasle Titularra – Frantses Hizkuntza Napoliko Federico II Unibertsitatean (Italia).
- Valdir Heitor BARZOTTO, Unibertsitateko Irakasle Titularra eta São Pauloko Hezkuntza Unibertsitateko (Brasil) Zuzendariordea.

Antolakuntza taldeko kideak:

Giovanni AGRESTI (IKER, Université Bordeaux Montaigne)

Camille GUICHARD-LIBERSAC (IKER, Université Bordeaux Montaigne et Programa FLP, FFLCH, Universidade de São Paulo)

Paula Alexandra MONTENEGRO GÓMEZ (CLLE-Montaigne, Projet PaRL, Université Bordeaux Montaigne)

Lucie PAILLET (IKER, Université Bordeaux Montaigne)

Natália PENITENTE ANDRADE (Programa FLP, FFLCH, Universidade de São Paulo)

Lucie ROBERT (IKER, Université Bordeaux Montaigne)

Marie SARRAUTE-ARMENTIA (IKER, Université Bordeaux Montaigne)

Talde zientifikoa:

ANGELO Denise (Australian National University, Australie)

BARZOTTO Valdir (Universidade de São Paulo, Brésil)

BERTILE Véronique (CERCCLE, Université de Bordeaux, France)

BLANCHET Philippe (BLM-CELTIC, Université de Rennes 2, France)

BUSQUETS Joan (CLLE-Montaigne, Université de Bordeaux Montaigne, France)

CASTETS Rémi (D2IA, Université de Bordeaux Montaigne, France)

CHATEAUREYNAUD Marie-Anne (LAB-E3D, Université de Bordeaux, France)

DJORDJEVIC-LÉONARD Ksenija (DIPRALANG, Université de Montpellier 3, France)

FERNANDES Carla (AMERIBER, Université Bordeaux Montaigne, France)

GUILLIOT Nicolas (CLLE-Montaigne, Université de Bordeaux Montaigne, France)

LAUNEY Michel (Professeur honoraire à l'Université Paris-Cité France, directeur de recherche honoraire à l'IRD-Guyane, France)

LÉONARD Jean-Léo (DIPRALANG, Université de Montpellier 3, France)

MOYA Sindy (Pontificia Universidad Javeriana, Colombie)

OLÇOMENDY Argia (IKER, Université Bordeaux Montaigne, France)

PRADEAU Coraline (DYLIS, Université de Rouen, France)

RIOLFI Claudia (Universidade de São Paulo, Brésil)

STULIC Ana (AMERIBER, Université Bordeaux Montaigne, France)

SUZUKI Elli (D2IA, Université de Bordeaux Montaigne, France)

VIAUT Alain (Chercheur émérite au CNRS, France)

VILLA PEREZ Valeria (CLLE-Montaigne, Université de Bordeaux Montaigne, France)

ZOUOGBO Jean-Philippe (CLILLAC, Université Paris Cité, France)

Bibliografia orokorra:

AGRESTI, Giovanni, 2020. La médiation du linguiste dans le conflit diglossique : du regard rétrospectif aux nouvelles perspectives. In : *L'essentiel de la médiation. Le regard des sciences humaines et sociales*. Bruxelles : Peter Lang. pp. 123-142.

ANDIÓN HERRERO, María Antonieta et GIL BURMANN, María, 2013. Las variedades del español como parte de la competencia docente: Qué debemos saber y enseñar en ELE/L2. In : JIMENO PANÉS, Maribel (coord.) *Actas del I Congreso Internacional de Didáctica de Español como Lengua Extranjera*. Budapest: Instituto Cervantes de Budapest. pp. 45-57.

BARZOTTO, Valdir Heitor, 2004. Nem respeitar, nem valorizar, nem adequar as variedades lingüísticas. *Ecos Revista*, Cáceres - MT, Vol n°2, pp. 93-96.

BERTILE, Véronique, 2008. *Langues régionales ou minoritaires et Constitution: France, Espagne et Italie*. Bruxelles : Bruylant.

BLANCHET, Philippe, 2005. Essai de théorisation d'un processus complexe: *Cahiers de sociolinguistique*. 1 décembre 2005. Vol. n° 10, n° 1, pp. 17-47. DOI [10.3917/csl.0501.0017](https://doi.org/10.3917/csl.0501.0017).

BOYER, Henri, 2012. L'implication du sociolinguiste « périphérique » dans DOTTE Anne-Laure, MUNI TOKE Valelia et SIBILLE Jean, *Langues de France, langues en danger: aménagement et rôle des linguistes*, *Cahiers de l'Observatoire des pratiques linguistiques* n° 3, Paris, Ministère de la Culture et de la Communication, DGLFLF, pp.79-85

DEFAYS, Jean-Marc, 2018. Chapitre II. Explorer, expliquer et exploiter la langue sous tous ses aspects. In : *Enseigner le français langue étrangère et seconde: approche humaniste de la didactique des langues et des cultures*. Bruxelles : Mardaga supérieur, 2018. pp. 27-79. Psy, 19.

FABÀ PRATS, Albert et TORRES-PLA, Joaquim, 2020. De la llengua inicial a la llengua d'identificació a Catalunya : qui adopta el català i qui se n'allunya. *Treballs de Sociolingüística Catalana*. 2020. N° 30, pp. 213-232. DOI [10.2436/20.2504.01.168](https://doi.org/10.2436/20.2504.01.168).

HAQUE, Shahzaman, 2019. *Politiques linguistiques familiales*. LINCOM EUROPA, 2019.

LAFONT, Robert, 1997. *Quarante ans de sociolinguistique à la périphérie*. Paris : Harmattan. Collection Sociolinguistique. ISBN 978-2-7384-5808-7.P40.45.F8 L33 1997

MÉTANGMO-TATOU, Léonie, 2020. *Pour une linguistique du développement. Essai d'épistémologie sur l'émergence d'un nouveau paradigme en sciences du langage* [en ligne]. Zenodo.

OTTAVI, Pascal, 2010. Langue corse et polynomie: Retour sur un processus langagier dans l'enseignement secondaire. *Cahiers de sociolinguistique*. 1 juin 2010. Vol. n° 15, n° 1, pp. 87-96. DOI [10.3917/csl.1001.0087](https://doi.org/10.3917/csl.1001.0087).

ZOUOGBO, Jean-Philippe (éd.), 2022. *Linguistique pour le développement : concepts, contextes et empiries*. Paris : Editions des archives contemporaines. Collection InterCulturel. ISBN 978-2-8130-0434-5.